

# Rudolf Trebitsch: euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak (1913)

MARCELO MIGUEL LÓPEZ DE ARANA ARRIETA\*  
INAXIO LÓPEZ DE ARANA ARRIETA\*\*

Irlanda, Gales, Ingalaterra, Britainia, Eskozia eta Laponian azterlanak burutu eta gero, 1913ko uztailearen 18an Rudolf Trebitsch etnologo austriarra, Vienako Zientzietako Akademia Inperialeko kidea, Euskal Herrira etorri zen, besapean gramofono bat zekarrela. Beraren asmoak bi ziren: euskalki guztien grabazioak egitea eta euskal etnologiaren bilduma bat osatzea. Gainera, grabazio musikalak ere egin zituen, euskal ondare musikalaren adierazle. Beraz, bada, bi motatako grabazioak lortu zituen Euskal Herrian: hizkuntz grabazioak eta grabazio musikalak. Beraren helburua betetzeko, laguntzaile asko izan zituen, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak, hala nola, Julio Urkijo, Telesforo Aranzadi, Gregorio Mujika, Resurreccion Maria Azkue, Georges Lacombe eta Gabriel Roby, eta, jakina, gramofonoaren aurrean berbetan ibili ziren euskal hiztunak ere bai.

Euskal grabazioak 64 diskotan banatuta daude eta bakoitzak bi minutu irauten du gutxi gora-behera. Denera, 130 minutu dira. Euskalki guztietakoak daude, bai eta erronkarierakoak ere, dagoeneko desagertu bada ere. Hauexek ditugu, ezberrik gabe, euskaraz dauden grabaziorik zaharrenak eta Vienako Fonotekan daude, baina 1984tik Bilboko Azkue bibliotekan eskuagarri ditugu haien kopiak, P. Xarriton eta José M<sup>a</sup> Etxebarria euskaltzainei esker. Gainera, José M<sup>a</sup> Etxebarria dugu grabaziook eta euren nondiko guztiak sakonkien eta zehatzen aztertu dituen euskal ikerlaria. Gai honi buruz berak ondutako zortzi artikuluetan hizkuntz grabazio gehienak transkribaturik agertzen dira, bai eta zenbaitetan aztertutik eta itzulirik ere.

\* Ingeles Filologian lizentziatua eta ingeles irakaslea.

\*\* Euskal Filologian lizentziatua eta itzultzailea.

Grabazioetan denetariko testuak daude<sup>1</sup>: ipuinak, kontakizunak, pasadi-  
zoak, abestiak... Abestien artean, “Agota” erromantzea osorik agertzen da eta  
Santa Agedaren eskari kanta bat ere bai. Beti prozedura berbera erabiltzen zu-  
ten: lehenbizi, ipuina, abestia edo dena delakoa idatzi egiten zuten eta gero,  
grabatzeko tresnaren aurrean irakurri edo abesten zuten. Azkenik, Trebits-  
chen laguntzaileek gaztelaniara edo frantsesera aldatzen zuten testua, gero  
alemanierara itzuli ahal izateko.

1913ko uda Euskal Herrian eman eta gero, Rudolf Trebitsch Vienara  
itzuli zen eta, hemen egindako lan eskergea zabaldu nahirik, artikulua bat osa-  
tu zuen: “34. Mitteilung der Phonogramm-Archivs-Kommission der kaiserl.  
Akademie der Wissenschaften in Wien. Baskische Sprach- und Musikauf-  
nahmen”. Artikulu hori honako aldizkari honetan argitaratu zuen: “Anzeiger  
der philosophisch-historischen Klasse der kaiserlichen Akademie der Wis-  
senschaften in Wien, Vol XI, Viena 1914”. Trebitschi buruzko bibliografia  
sakonki aztertuagatik, aipamen bakarra aurkitu ahal izan dugu artikulua horri  
buruz, hain zuzen ere, Gregorio Mujikak 1914an “Euskal Herriaren Alde” ize-  
neko aldizkarian egin zuena. Bertan zioenez, Trebitschen artikulua hori des-  
kriptiboa da gehien bat, bertan Trebitschen ibilbidea, bere laguntzaileen  
izenak eta horrelako gauzaren bat baino ez baita aipatzen. Hala ere, egiazko-  
tasuna du ezaugarri nagusizat, Gregorio Mujikak berak aitortu zuenez.  
Antza, Trebitschek txosten bat argitaratzeko asmoa zuen bere ikerlanen on-  
dorioak zehatz-mehatz emateko. Baina ezin dugu kontu hori baietsi, adiera-  
zitako aipamen txiki hori baita balizko txosten horri buruz dakigun guztia.

Artikulu hau testu historikoa dugu eta balio handikoa, bestek beste,  
Austriako ikerlari batek mende hasieran Euskal Herriari buruz zuen ikuspe-  
gia islatzen duelako, aspaldiko Euskal Herri baten berri-emaile bikaina dela-  
ko eta euskal izaerari, ohiturei, sinesmenei eta abarri buruzko xehetasunez  
ederto hornituta dagoelako. Gainera, testu hau orain arte alemanieraz baino  
ezin zitekeen irakur.

Dena dela, Rudolf Trebitschekikoetan sakondu nahi izanez gero, hona  
hemen orain arte gai honen inguruan argitaratutakoa, sarrera labur honetan  
adierazitakoen egiaztagarri:

1 - *El viaje del Doctor Trebitsch. Este investigador vienés recorre nuestro país en-  
viado por la Academia Imperial de Ciencias de Viena.* Julio Urkijo: Euskal Herriaren  
Alde, 1913, III, 631-632.

2 - *Euskal Herriaren Alde y el Archivo fonográfico y el Museo Etnológico de Vie-  
na. Cartas cruzadas con motivo del viaje de doctor Trebitsch al País Vasco.* Grego-  
rio Mugica: Euskal Herriaren Alde, 1913, III, 682-683.

3 - *De lingüística y etnografías vascas. A propósito del viaje del Dr. Rodolfo Tre-  
bitsch.* Julio Urkijo: RIEV, 1913, VII, 575-583.

4 - *Baskische Sprach- und Musikaufnahmen ausgeführt im Sommer,* Wien,  
1914. Gregorio Mugica: Euskal Herriaren Alde, 1914, IV, 552.

5 - *Vienako euskal grabaketak.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: EUSKERA XXIX, 1984-1,  
395-397.

6 - *Las grabaciones en euskera de la fonoteca de Viena. Cuentos y anécdotas en  
dialecto vizcaino.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: Etniker - Bizkaia aldizkaria, 9. zk, 1990,  
187-204.

<sup>1</sup> Hizkuntz grabazio guztiak argitara eman dira, zubererazkoak eta gipuzkerazkoak izan ezik (I.O.).

7 - *Las grabaciones en euskera de la fonoteca de Viena. II. Grabaciones en dialecto labortano.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: Anuario de Euskal Folklore, 36. zk, 1990, 59-64.

8 - *1913ko Vienako euskal grabaketak, III. erronkariara.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: IKER-6, 161-176.

9 - *Euskalkietan egindako lehenengo grabaketak.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: IKER-7, 607-618.

10 - *Euskalki guztien etno-testuak.* José M<sup>a</sup> Etxebarria eta Juan Manuel Etxebarria: Euskal Apunteak 17, Labayru ikastegia, Bilbo, 1991.

11 - *Las grabaciones de Viena en euskera. Dialectos Alto navarro septentrional y meridional.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: Mundaiz 45, 1993, 19-28.

12 - *Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y Bajo navarro oriental.* José M<sup>a</sup> Etxebarria: Mundaiz 47, 1994, 45-76.

Eta, besterik gabe, hemendik aurrerakoak dituzue Trebistchen hitzak, euskaraturik.

**“Vienako Zientzietako Akademia Inperialaren artxibo fonografikoaren batzordeko 34. adierazpena. Euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak, 1913ko uda.”**

*1913ko udan Euskal Herrian ibilia nauzue, uztailaren 18tik irailaren 8ra arte, grabazio fonografikoak egiten. Horren ondoren, honako txosten hau bidali nuen Artxibo Fonografikora:*

*Zenbait iturritatik jakin ahal izan dudanez, euskararen erabilpen eremua arian-arian murrizten ari da; horrek esan nahi du euskalki batzuk galzorian daudela, horregatik, fonografoz gorde behar ziren euskalkirik garrantzitsuenak.*

*Niri baino lehen Azoulay doktoareari bururatu zitzaion euskararen grabazio fonografikoak egitea. Hala jakinarazi zigun, gainera, “Bulletins et mémoires de la Société d’antropologie de Paris” aldizkarian, 1901ean, “Sur la manière, dont a été constitué le musée phonographique de la société d’antropologie” artikuluan (305. orritik aurrera). Jakin badakigu Azoulay doktoareak, euskararako eta beste hizkuntza askotarako, Itun Berriko “Seme Iriolea”ren alegiaren narrazioa fonograma gisa erabili zuela. Grabazio haiek Parisko Erakusketa Unibertsalaren kariaz burutu ziren, ekitaldi hartara zenbait herrialdetako ordezkariak azaldu baitziren.*

*Oraingoaz, datu batzuk emango ditugu Euskal Herriko geografiari buruz. Zazpi dira euskal probintziak. Horietariko hiru, hain zuzen ere, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, Frantzian daude eta Pirinio Beheretako departamentuan<sup>2</sup> kokaturik daude. Gainerako laurak, berriz, Espainian daude eta Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa deritze.*

*Gaur egun, euskaldunak 600.000 inguru dira, eta horietatik 120.000 Frantzian bizi dira.*

*Bertan ikusi ahal izan nuen ez, euskara ez da eskoletan irakasten, ez Espainian, ez Frantzian. Ulergarria da, beraz, zergatik ez den gehiago erabiltzen. Gainera, eskolan ez irakaste horrek zailtasun handiak dakarzkio bertako jende-ari euskaraz idazteko orduan. Ez daude batere ohituta horretara, eta gainera, ortografia ez da inolaz ere finkoa. Zailtasun horiei aurre egin behar izan diegu etengabe, grabazioak paperera aldatu nahi izan ditugunean eta fonografoaren*

<sup>2</sup> Pirinio Beheretako departamentua: izen hori zuen 1969ra arte egungo Pirinio Atlantikoetako departamentuak (I.O.).

*aurrean irakurtzeko orduan. Kantuak buruz grabatu dira fonografoan, ahozko tradizioari esker. Euskara erabat isolatuta dago Europan eta azken azterlanen arabera ahaidetuta dago hizkuntza kamitikoekin. Luis Luziano Bonaparte printzearen garaian, euskara Araban galzorian zegoen eta gaur egun erabat desagertu da, nire berri-emaleak ezin baitzidan Euskal Herriko alde horretako leku bakar bat ere adierazi grabazio fonografikoak egiteko.*

*Katedradun, doktore eta Gorteko aholkulari den Graz hiriko Hugo Schuchard jaunak labur-labur azaldu zizkidan nire ibilaldiaren helburuak, Euskal Herrian norekin bilduko nintzen aipatuz. Ibilaldia Bartzelonako Unibertsitateko katedradun den Telesforo Aranzadi jaunak gutunez zehaztu zidan, baita Julio Urkijok ere, berarekin izandako bileretan. Julio Urkijo Donibane Lohizuneko “Revue internationale des études basques” aldizkariko zuzendaria da. Halaber, Parisko Georges Lacombek<sup>3</sup> –aipatutako aldizkariko idazkaria– eta Frantziako Hazparneko Pierre Broussainek ere parte hartu zuten ekimen horretan.*

*Frantzian, Pirinio Beheretako departamentuan hitz egiten da euskaraz. Honako muga hauek ditu euskarak: Iparraldetik, gutxi gora-behera, Aturri ibaiaren hegoaldea, ibaiaren ekialdetik hasita, hain zuzen ere, Txütxe herrian, Aturri ibaian zehar itsasoraino; Ekialdetik, iparretik hegorantz Aturri ibaiaren bihurtzerik gehienak kurrutzen dituen marra; Mendebaldetik, Ozeano Atlantikoa; eta Hegoaldetik, Pirinioak. Gainera, muga horren ekialdean, Biarno izeneko antzinako probintzia dago, bera ere Pirinio Beheretako probintzia. Mendebaldean Lapurdi izeneko antzinako probintzia dago, erdian Nafarroako Erresumaren zati bat eta Ekialdean Zuberoa.*

*Ondoko euskalkiak hartu behar dira kontuan:*

*1.- Lapurtera: Lapurdiren mendebaldeko erdialdean hitz egiten da. Eskualde hartan, Espainiaren eta Frantziaren arteko mugatik hurbil dauden bi herri aukeratu ziren lan fonografikoa egiteko, Sara eta Ainhoa, hain zuzen ere.*

*2.- Behenafarrera: Lapurdiren ekialdeko erdialdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoaren zati txiki batean erabiltzen da. Bi azpieuskalki ditu:*

*a) Ekialdeko behenafarrera. Lan fonografikoa leku hauetan egin da: Amorotze, Beskoitze eta Donibane Garazi.*

*b) Mendebaldeko behenafarrera. Lan fonografikoa leku hauetan egin da: Hazparne eta Baigorri.*

*3.- Zuberera. Kasik Zuberoa osoan hitz egiten da. Lan fonografikoa Maulen, Barkoxen eta Santa-Grazin egin da.*

*Espainiari dagokionez, Nafarroaren, Gipuzkoaren, Bizkaiaren eta Arabaren zatirik handienean erabiltzen da euskara.*

*Espainian, euskarak ondoko hizkuntz muga hauek ditu: Ekialdetik, Espainiaren eta Frantziaren arteko muga eta Nafarroaren eta Aragoiaren arteko muga; Hegoaldetik, Nafarroako erdialdea eta Arabaren zatirik handiena; Mendebaldetik, Bizkaiaren mendebaldea; eta Iparraldetik Ozeano Atlantikoa.*

*Espainiako euskalkiak ondokoak dira:*

*4.- Nafarroako euskalkia goinafarrera deitzen da eta azpieuskalki hauek ditu:*

<sup>3</sup> Abizenak idazteko orduan, José M<sup>a</sup> Etxebarria euskaltzainak gai honi buruz ondutako artikuluetan erabilitako moldeari eutsi diogu (I.O.).

a) *Iparraldeko goinafarrera: grabazio fonografikoak Elizondon egin ziren.*

b) *Hegoaldeko behenafarrera: lan fonografikoa Agoitzen egin zen.*

c) *Nafarroaren iparrekialdekoa: Frantziarekin muga egiten du eta iparralderago dauden Frantziako barrutietan ere erabiltzen da. Ekialdeko eta Mendebaldeko behenafarrerak eta zuberera talde horretakoak dira. Espainian, Erronkaribarrean erronkarieraz hitz egiten da eta euskalki horrek lotura estua du zubererarekin. Lan fonografikoa Uztarroten egin da, Erronkaribarrean.*

5.- *Gipuzkera: Bizkaiko ekialdean eta Gipuzkoa osoan hitz egiten da. Hurrengo lekuetan egin ziren grabazio fonografikoak: Bergara<sup>4</sup> (Bizkaia), Ataun, Tolosa eta Azpeitia (hirurak Gipuzkoan).*

6.- *Bizkaiera: Bizkaiko ekialdeko bi herenetan erabiltzen da eta Bizkaiarekin muga egiten duen Arabako iparraldean. Lan fonografikoa honako leku haueetan egin da: Lekeitio, Markina eta Mungia.*

*Oro har, Julio Urkijok dioenez, euskarak Espainian Frantzian baino gehiago egin du atzeraka, Frantzian dialektoei baino ez dielako aurre egin behar izan, bereziki, biarnesari. Espainian, aldiz, estatuaren hizkuntzarekin eremu berean bizi behar du. Euskaraz ezer gutxi dago idatzirik, hala ere, badirudi Frantzian lapurterak eta Espainian gipuzkerak gainditu nahi dutela egoera hori. Euskal Herrian ia-ia ez dago elebakarrik. Euskaldun gehienek euren ama hizkuntza ez ezik, frantsesa ere badakite (Frantzian) ala espainiera (Espainian).*

*Frantzian euskal narrazioak frantsesera itzuli dira eta Espainian espainierara.*

*Diskoetako grabazioen hurrenkera joan garen lekuen ordena kronologikoa kontuan izanda antolatuta nahi izan dut, gutxi gora-behera.*

*Saran (Lapurdi, Pirinio Beheretako departamentua, Frantzia), Julio Urkijok zenbait pertsona lortu zizkidan grabazioak egiteko.*

*2.177. eta 2.178. diskoetan 79 urteko Janeta Hiribarren emagina dugu hizlari. Argitaratu gabeko usadiozko narrazio erlijioso bat azaldu digu, Salom erregeari buruzkoa. Grabazioko hizlariari bere aitona kontatu zion istorioa. Emakume haren arabera, narrazioak 100 urte inguru ditu: Salomon erregea beste errege baten etxera joan zen, eta bertan familiari buruz galdetu zioten. Salomon erregea lotsatu zen hiru alaba besterik ez zuelako; hori zela eta, gezurra esan zuen hiru seme zituela adieraziz. Gero, anfitrioiak juduen agintariari eskatu zion seme bat bidal ziezaion. Salomon erabat atsekabaturik itzuli zen etxera. Beste erregeari bere alabetako bat bidaltzea erabaki zuen, gizonez jantzita bera. Salomon erregeak ikusi nahi zuen zer-nolako adorea zuten bere alabek: horretarako, lapurrez mozorrotuta, banan-banan zelatan ibili zitzairen. Gazteena ondo atera zen abenturatik eta aukeratua izan zen atzerriko gortetako bidaia egiteko. Halaxe amaitu zen grabazioa. Grabazioaren ondoren, narrazioari amaiera emateko, Janeta Hiribarrenek esan zigun erregearen emaztea mutil gaztea omen zenaz maitemindu zela. “Mutil gazteak” ezetza eman zionez, emakumeak haren izena iraindu zuen bere senarraren aurrean. Mirari bati esker, hain zuzen ere, aingeru batek emandako laguntzari esker, Salomon erregearen alabaren errugabetasuna azkenean frogaturik geratu zen. Beste erregeak heriotz-zigorra ezarri*

<sup>4</sup> Rudolf Trebitschen hutsa, Bergara Gipuzkoan baitago eta ez Bizkaian (I.O.).



zion bere emazteari; neska ausartak, berriz, etxerako bidea hartu ahal izan zuen, eta erregeak ohore handiak egin zizkion. Grabazio hau egin duen andre zaharrak euskara besterik ez daki, frantsesa ondo ulertzen badu ere.

2.179. eta 2.180. diskoetan 36 urteko pilotari bat dugu hizlari, Jean Pierre Lemoine. 2.179. diskoan amodiozko kanta bat agertzen da eta bertan gizon bat berak maite duen emakumearen narrakzeriaz kexatzen da. Kantaren konpositore eta libretista ezezaguna da eta kanta hori ehun bat urtetan ez da galdu ahozko tradizioari esker. Bigarren ahapaldian behenafarreraren eragina nabaria da ahoskeran. 2.180. diskoan, Napoleon III.a Saran egon zela-eta ongi etorria emateko kanta bat ondu zen. Eugenie enperatriza zuriz jantzitako emakume aingerutarra dela esaten da bertan.

Aurreko lau diskoetako narrazioak Julio Urkijok paperera aldatu eta frantsesera itzuli zituen.

Beskoitzen (Pirinio Beheretako departamentua, Frantzia), Julien Héguyren bidez lortu nuen grabazioetarako jendea.

2.181. diskoan Jean Amestoy apaiza mintzatzen zaigu. Baptiste Darricau ostalariaren biografiaren berri ematen du. Baptiste Darricauk ez zuen testua idatzi, traketsedia baitzen testua irakurtzeko. Hartara, Jean Amestoy izan zen grabazioan hizketan agertzen zena.

2.182. diskoan Baptiste Darricau dugu kantari. Kanta batzuetatik ateratako hiru zati entzun ditzakegu. Kantak leku batetik bestera zabaltzen direnez gero, euskalkia ez da garbi-garbia, lapurteraren eta hegonafereraren arteko nahasketa baizik. Lehenengo zatian Lapurdiko olerkariak omentzen dira; bigarrenean, berriz, gizon batek bere maiteari esaten dio hura behar bezala gor-teiatzeko, Luis Felipe izan nahi lukeela, Frantziako erregea, alegia; eta azkenik, hirugarrenean, gogoeta filosofiko labur bat egiten da gizakien ezaugarriei buruz.

Hazparden, Pierre Broussain alkate eta doktore jaunaren bidez lortu nuen grabazioetarako jendea.

2.183. diskoan Joseph St. Martin Daguerre apaiz eta irakaslea dugu hizlari. Bertan, bere amak kontatu zizkion pasadizo batzuk aditzera emango ditu. Lehenengo pasadizoa: ostalera batek hiru zurrutaritatik jostarienari ondokoa esan zion: "Hil ondoren ere zurekin egon nahi nuke". Bezeroak: "Han ostatu bat besterik ez dut behar. Horrela bada, gustura joango naiz hara". Bigarren pasadizoa lauso xamarra da. Hirugarrenean, emakume nagusi bat, lantuen eta auhenen artean, hil berri den norbait deitoratzen ari da. Auzoko emakume batek galdetzen du ea hildakoa haren senitartekoa ote den eta hark erantzuten: "Ez, baina gizon hura hiru emakumerekin ezkondu izan balitz, honezkero ez nengo-keen ezkongabe".

2.184. diskoa, Leon Salvat zapatariarena. Bertan kontatzen da behin Hazparden saiatu zirela zaldi-tratalari bat hiltzen.

2.185. diskoan Pierre Broussain doktore jaunak azalpen ugari ematen du euskarari buruz. Gaia hau da: zergatik egiten ote du atzera euskarak frantsesaren eta espainieraren aurrean? 1.- Eskolan irakasten ez delako; 2.- Gizartearen beheko mailak, kulturadunen jokabideari jarraiki, euskaraz gutxiago egiten duelako; 3.- Euskarak, frantsesarekin eta espainierarekin alderatuz gero, hiztegi urria du, azken mila urtetan ez duelako inola ere eboluzionatu. Auzi horrek konponbide erraza du: hitz berriak sor litezke, dagoeneko badirenetatik abiatuta.

*Amorotzen, Adolphe Berdeco, bertako alkate eta finka baten jabea, oso atsegina izan zen eta gure grabagailuaren aurrean hitz egin zuen. Gainera, bi pertsona lortu zizkigun horretarako.*

2.186. *diskoa, Adolphe Berdecoren. Lehendabizi, gogoeta txiki bat egiten du bere eskualdeko euskalkiari buruz. Adolphe Berdecok dioenez, Elizaren eraginez, euskalki horrek atzerakada handia izan du Lapurdin. Gero, deskribapen labur bat egiten du goizeko lehenengo orduko erbi-ehizaldiaren inguruan sortzen den giro alaiari buruz.*

2.187. *diskoan, Cathérine Faut jostunak adierazten digu nola erre zuen esku bat, petrolio-lanpara bat baldarkeriaz erabiltzen ari zela. Orobat, esaten digu zenbat sufritu behar izan duen zenbait astetan, eskua sendatu arte. Bukatzeko, umore onez esaten du hura guztia gertatu izan ez balitzaio, ez zukeela aukerarik izango fonografoaren aurrean hitz egiteko.*

2.188. eta 2.190. *diskoetan Jeanne-Marie Mendivil ostalersak adierazten digu bera nola iritsi den egungo egoerara, familia pobretik etorrira ere, zenbait lekutan neskame ibili ondoren eta behin ere dirurik alferrik galdu gabe. Grabazioaren hasieran esaten digunez, bera idi parez atzetik zeukala sarritan joaten zen sorora. Hori, dudarik gabe, oso datu jakingarria da ikuspegi etnografikotik. Jokabide hori eskualde hartako ohitura bati loturik dago. Izan ere, horrela bidea erakusten omen zitzaien idiei, eta soroan ez zen sekula ere haiei tira eginez lan egiten aritzen.*

### **Donibane Garazin:**

2.191. *diskoa, Jean-Baptiste Landabure botikariarena. Kontakizuna Leon Barbier ordezkariaren ahotik entzun genuen. Hala ere, ez zuen astirik izan fonografoaren aurrean hitz egiteko, eta haren lekua Jean-Baptiste Landaburek bete zuen. Lehenengo kontakizunean, duela berrogeita hamar urte Donibane Garaziren inguruan jokatu zen pilota-partidu batez mintzatzen zaigu. Partidua hain denbora luzean egon zen berdindurik, bi egun iraun baitzuen. Pilota-jokoa tenisa bezalakoa da eta euskaldunen kirol nazionala da. Diskoaren bigarren zatian 1848ko gertakari baten berri ematen da: Donibane Garazin azoka-egun batean liskarra gertatu zen bertako jende-pilo batek bi desertore askatu nahi zitu-lako, haiek atxilotzeko agindua zeukaten gendarmeen eskuetatik. Aldi berean, nekazariak euren makilak astintzen ari ziren. Makilak usadiozko bastoiak dira eta punta burdinaz apainduta daukate. Michel Renaud senadoreak itzal handia zuen eskualde hartan eta berak lortu zuen egoera bere onera itzultzea.*

2.192. *diskoa, Baptiste Alaman notariarena. Benetan gertatutako pasadizo baten narrazioa: ehiztari batzuk azaroan joan ziren pagausoak harrapatzera, eta ohartu ziren gizon zahar bat beti otorduen ostean sartzen zitzaizela ehiza-txabolara eta botiletako azken tantak hurrupatzen zizkiela. Gizon zaharrak grabazioa hizlariari adierazi zion berean jarraitzeko asmoa zeukala. Hori zela eta, ehiztariak botila bat laxantez betetzea erabaki zuten. Handik lasterrera, gizon zaharra etxolaren zoruan etzanda agertu zen, minaren minez. Hala sendatu zizkioten alkoholismoa eta litxarreriarako zaletasuna. Orain, segidan euskal hitz gordin batzuk aipatuko ditut: “Agian kunkurtuko hiz orruaz!”, “debiak eremain ahal hu Arradoiko kaskuari goiti!”, “leher eta zapart inen ahal duk!”.*

2.193. *diskoan, Pierre Jenda nekazariak irrintzi bat egiten du, euskal oi-hu bat. Eskuarki, artzainek mendi gailurretatik irrintzi egiten diote elkarri. Elkarrekin komunikatzeko halako seinale bat da. Batzuetan, lana behar bezala egin-*

*dakoan egiten den agur-oihua besterik ez da; irrintziak Tiroleko kantuen antza du.*

*2.181.etik 2.193.era bitarteko diskoetako narrazioak Georges Lacombe jaunak paperera aldatu eta frantseseratu zituen. Georges Lacombe hasieran aipaturako aldizkariko idazkaria da.*

### **Baigorri:**

*2.194. eta 2.195. diskoak, Pierre Minjonnet ikasle unibertsitarioarenak. Baigorri urte hasieran gertatutako uholde izugarrien berri ematen da. Jakin dugunez, hango emakumeek kandelak piztuta otoitz egiteari ekin zioten eta, bitartean, gizonak saiatu ziren ahal zuten guztia salbatzen. Ez zen inor hil, animalia batzuk baino ez; uzta, ordea, zeharo galdu zen. Bukatzeko, hizlariak eskerrak ematen dizkie uholdeak gertatu ondoren laguntzen ibili diren guztiei.*

*2.196. eta 2.197. diskoak, izena eman nahi izan ez duen kaperau batenak<sup>5</sup>. “Almanaka” izeneko egutegi katolikotik ateratako istorio bat kontatzen du. Hain zuzen ere, 1911ko ale batean argitaratu zen istoriaren oinarria den egutegia. Klerikoak buruz azaldu digu. Zenbait krimen burutu dituela aitortu duen soldadu bat Afrikan hiltzeko kondenatzen dute. Hara abiatu aurretik, ziega batean bakarrik giltzaperatu dute. Istorio horretan ikusten da zer-nolako kontsolamendua ematen dion fedeak bakardade latz horretan. Bukatzeko, grabazioa hizlariak dioenez, gaizkilea lasai dago heriotzaren zain, erlijioaren aringarria hartu du eta.*

### **Maulen:**

*2.198. diskoa, Michel Arricar kaperauarena. Sei urte bete arte Michel Arricar Montevideon bizi izan zen bere gurasoekin. Harrezkero kleriko hura Maulen bizi izan zen. Hori dela eta, hango euskalkia darabil. Grabazioa hiru istorio osatzen dute: 1) Bi emakume elkarrekin doaz trenean. Batak besteari haren familiaz galdetu dio eta besteak erantzun dio seme bat baino ez daukala. Gero galdetu dio ea seme hark erretzeko, edateko edo tabernaz taberna ibiltzeko ohiturarik ba ote duen. Ezetz erantzun dio, galdetzailearen harridurarako. Orain galdetu dio semeak zenbat urte dituen eta hauxe da erantzuna: bi hilabete; 2) Delinkuente bat justiziaren aurrean jarri dute. Emandako argudio baten arabera, seguru asko lagun txarrekin bultzatuta burutu ditu leporatzen zaizkion delituak. Hori entzunda, delinkuenteak esan du: “Inorekin ez dut izan epaile jaunokin bezainbesteko harreman esturik”; 3) Gizon bat bere emaztearekin eztabaidan ari da. Sesioa gogorra da eta, halako batean, gizonak esaten dio kuso bat merezi duela senar gisa eta emazteak erantzuten dio: “Horrexegatik aukeratu zintudan”.*

*2.199. diskoan André Armagnague dugu kantari. Guztira, hiru herri kanta entzun daitezke eta horietako bi dagoeneko inprimategitik pasatu dira. Lehenengoan esaten da urretxindorrek neguan ez kantatzeak kantaren egileari pizten dion atsekabea haren kantua berriro udan entzungo dela pentsatuta arintzen dela. Bigarrenean, baserritar batzuek bere etxe aurrean duten solasaldi baten berri*

<sup>5</sup> José M<sup>a</sup> Etxebarria euskaltzainak bere artikulueta batean jakinarazten digunez, hizlari horren izen-deiturak hauek dira: Emanuel Passicot (I.O.).



ematen da. Hirugarrenean, ardoak ematen duen alaitasuna goratzen da, horri esker kantaria birigarroa bezain alai baita.

2.200. eta 2.201. diskoak, Michel Gustarriet eskola-maisuarenak. Diskoetan entzun dezakegu zer-nolako borrokak gertatu ziren erreakzionarioen eta liberalen artean, barrutietako batzordeetarako hauteskundeen kariaz. Alderdi erreakzionarioa oso gogor maisetzen du. Azkenean, ideologia liberala duen gizon bat proposatzen da barrutiko batzorderako. Bere ezaugarri onak gogo biziz aipatzen dira. Kontakizun hori egunkari bateko artikulu batetik hartutakoa da. Michel Gustarrietek berak idatzi zuen artikulu hura, grabazioko hizlariak, alegia. Erreakzionarioez ari denean, "zuriak" deitzen die.

#### **Barkoxen, Mauletik hurbil:**

2.202. diskoan Marie Barrère neskamea dugu kantari. Kantaren edukia: herri kanta zahar bat da eta "Agota" du izenburutzat. Agotak Euskal Herrian bi-zi diren giza taldeak dira. Euskaldunek muzin egiten diete. Badirudi legenardunak zituztela arbasotzat, zenbait gorputz-atal desitxuraturik dauzkatelako: euren belarriak itxuragabeak dira, esaterako. Litekeena da "agot" hitza "canis gothicus"tik etortzea. Etimologia horren arabera, agotak bisigodoen ondorengoak dira. Mutil batez erabat maiteminduta dagoen neska bat agertzen da kantan. Baliteke, hala ere, guztiz maiteminduta egon arren, mutil horrekin ezin ezkontzea, berak gurasoak eta senideak kontra dituelako. Neskak esaten du bere senargaia leinu ukatu hartakoa zelako susmorik txikiena izan balu, ez zatekeela harekin harremanetan hasiko. Agotek belarri bat bestea baino handiagoa dute; horixe da euren bereizgarria. Baina hori ez da betetzen mutil haren kasuan. Bere edertasuna deskribatzen da, eta horregatik, neskak harekiko fideltasunari eutsi nahi dio; mutilarekin hitz egitea debekatzen zaio.

2.203. diskoa, Julie Touan maistrarena. Bat-bateko olerki honetan Jacques Sardoy Ameriketatik itzuli dela kontatzen da, alaitasunez kontatu ere. Jacques Sardoy aberastuta etorri da. Bere ezaugarri on ugariak deskribatzen dira eta herriko gazteei dei egiten zaie haren ohoretan dantzatu, abestu eta musika jotzeko. Euskal dantzak ia gizonak bakarrik egiten dituzte; hori ondorioztatzen da grabazioaren transkripzioetik.

#### **Santa-Grazin:**

2.204. eta 2.205 diskoak. Gracieuse Constantinen bidez lortu dugu grabazioen edukia. Urtetan sartu xamarra denez gero, ez dugu harengana jo grabazio fonografikoa egiteko, baizik eta ostalariaren 18 urteko alabarengana, Gracieuse Hondagneurengana, horixe baita bi grabazioetan hitz egiten duena. 2.204. diskoan oraindik inprimategitik pasatu gabeko herri ipuin bat entzun dezakegu. Santa-Graziko bizilagun bat Espainiatik etxerantz zihoan kontrabandoko gazta besapean zeramala. Bidean ekaitza izan zela eta, haitezulo batean babestu zen. Han Basajaunarekin topo egin zuen. Sarritan deabruari izen hori ematen zaio. Basajaunak santa-grazitarrari esan zion hiru egia esaten ez bazizkion harenak egingo zuela, jan egingo zuelako. Orduan, hark esan zuen: 1) Jendeak dioenez, ilargibeteko gaua eguna bezain argia da, hori ez da egia; 2) Jendeak dioenez, artozko ogia garizkoa baino hobea da, nik ez dut hala uste; 3) Hemen aurkituko zintudala jakin izan banu, ez nintzatekeen hona hurbilduko. Basajauna bat etorri zen hiru egia haiekin eta Santa-Grazikoari eskatu zion berriro ez azaltzeko bere begien aurrera. 2.205. diskoan, oraindik inprimategitik pasa-

*tu gabeko herri ipuin bat dago. Bertan esaten da behin gizon bat bere emaztegaiari begira zegoela bere logelako leihotik. Gero, emaztegaiak ukenduz gorputza igurtzi eta tximiniatik hegan atera zen. Gizonak gauza bera eginda bere emaztegaia zegoen lekura iritsi zen. Ingurua oso loretsua zen eta ohartu zen bere emaztegaia sorgina zela eta beste sorgin batzuekin dantzan ari zela. Deabrua erdian zegoelarik belaunikatu egin zen eta emakume guztiek muin egin zioten ipurdian. Eskalapoia konpontzeko erabiltzen zuen puntzoi bat eskuetan hartuta, gure gizonak Satani puntzoi nondik sartuko eta sorginek muin egin zioten lekutik sartu zion. Bat-batean, hutsik eta isolaturik zegoen eskualde batean agertu zen; bakar-bakarrik zegoen. Etxera itzulita, betiko ahaztu zuen garai batean maite izan zuen neska hura.*

2.206. eta 2.207. diskoak, Pierre Hondagneu errementari eta ostalariarenak. Pierre Hondagneu aurreko bi diskoetan hizlari izan dugun neskaren aita da. Edukia: oraindik inprimategitik pasatu gabeko herri kontakizun bat. Dirugosez zegoen frantses bat Espainiara joan zen, baina ez zuen lan egiteko asmorik. Bidean konturatu zen tximitx asko zeudela Espainian. Enbalatzeko paper gorri puska batzuk erosi eta euren gainean kaleko hautsa bota zuen. Produktu hori erruz saldu zuen emakumeen artean Espainiako hiri batean, aipatutako zomorrotxoei aurre egiteko ona zela esanez. Frantziara itzuli zen eta irabazitako diru guztia azkar agortzen ari zitzaiola ikusita, Espainiara itzultzea erabaki zuen, lehengo prozedura erabiliz diru gehiago eskuratuko zuelakoan. Lehengo iruzurra egin zuen lekura itzuli zenean, emakumeak bidera irten zitzaitzkie, produktuarekin ez zutela ezer jakin nahi adieraziz, alferrikakoa baitzen tximitxen kontra. Gizonak azaldu zuenez, ahaztu egin zitzaion esatea hauts haiek erabiltzeko, lehenengo zomorrotxo haiek harrapatu behar zirela, gero, ahoa irekiarazi eta azkenik, produktua eman behar zitzaiela. Hori esanda, berriro ere arrakasta lortu zuen frantsesak, emakumeek produktua erruz erosi ziotelako. Hala, diru piloa irabazita, bere jaioterrira itzuli zen.

2.194. diskotik 2.207. diskora arteko grabazioak Gabriel Roby pintatzaileak paperera aldatu eta itzuli zituen. Gabriel Roby Euskal Herrian jaioa da, Parisen bizi den arren.

Ainhoan, aita Dominique Gironen bidez lortu nuen grabazioetarako jendea.

2.210. diskoa, Gabriele Garatena (tabernariaren alaba). Edukia: benetako gertakariak. Epaitegian ijito gazte bat lapurreta egin izanaz akusatu zuten. Auziko interpretariak mutilari lapurretari buruz galdetu zion eta hark esan zion ahapeka hitz egiteko, hango jendeak ezer entzun ez zezan. Hori entzunda, auziko instruktoreak esan zuen ijitoak lehenago lotsatu behar zuela eta han ez zegoela inongo sekreturik. Gaizkileak bere zigorra bete ondoren, trenean ordaindu gabe itzuli nahi zuen etxera. Treneko begiratzailea ijitoa zegoen lekura iristean, ijitoak esan zion txartela nonbait galdu zuenez, bilatu egin beharko zuela. Azkenean, treneko funtzionarioa ziriaz ohartu eta bidaiari hura trenetik egotzi zuen, etxera oinez joan zedin. Klerikoak esan zidanez, erabilitako euskalkiak Senperekoaren kutsua zuen, hangoa baitzen Gabriele Garateren ama.

2.211. diskoa. Lehenago aipatutako klerikoak idatzi zuen narrazio hau. 22 urteko Françoise Irigoyenek hitz egin zuen fonografoaren aurrean. Edukia: Andre Mariaren eguneko erromeriaren berri ematen da<sup>6</sup>. Muino baten gaineko

<sup>6</sup> Elezahar batek dioenez, Ama Birjina Larrun mendiaren elorri baten pean agertu zen eta hantxe eraiki zuten ermita bat, haren ohoretan (I.O.).

eraikin batetik gure begiak oso urrutira iristen dira, Espainiaraino, hain zuzen ere. Inguru hartako ikuspegiak ere deskribatzen ditu. Jakin ahal izan dugunez, zenbait mende lehenago artzain batek Ama Birjina ikusi zuen lekuan eraiki zen ermita. Ondoren datozen sudur-hots ugariak frantses hizkuntzari eta eskolako maisuari egotzi behar zaizkie. Horri buruzko argibideak Resurrección María Azkue erlijioso eta hizkuntzalariak eman zizkidan ahoz.

2.209. eta 2.210. diskoetako narrazioak Julio Urkijok paperera aldatu eta frantsesera itzuli zituen. Horrenbestez, Frantziako hizkuntz grabazioak amaituta, Espainiarantz abiatu nintzen.

**Espainian, lehendabizi Lekeitiora joan ginen:**

2.212. eta 2.213. diskoak, Resurrección María Azkue erlijioso eta hizkuntzalariarenak. Berak idatzitako eleberri baten zati bat da eta bere izenburua "Behinda betiko" da. Lan hau kondaira batean oinarriturik dago. Grabatutako pasartean Tsili izeneko gizon bat agertzen da. Gizon hark arrantzalezentzat egiten du lan, goizean eguraldiari behatuz eta jendeari aholkua emanaz, itsasoratu baino lehen. Goizeko ibilaldia egiten ari zela, portuko langile hark irudi handi eta beltz bat ikusi zuen. Hasieran, irudi hura penitentzigiletzat hartu zuen, halako asko zeudelako Lekeition. Hartara, ezezagunari eskatu zion santu bati otoitz egiteko. Ezezagunak ez zuen aintzat hartu eskaera hori, horregatik, Tsilik deabrua zela pentsatu zuen. Horregatik, besteak barre egin zion. Gero, iseka eginez galdetu zion ea haren beldur ote zen ala atzetik jarraitu nahi ote zion. Tsiliren erantzuna: "Noranahi".

2.214. diskoa, Antonio Arrizubietarena. Bertan azaltzen da nola urperatu ziren enbata izugarri batean bi arrantzuntzi, lekeitiarren begien aurrean. Azkenik, argi esaten zaigu tripulazioko kide batzuk ozta-ozta salbatu zirela mastei oratuta. Benetako gertakaria da; grabazioan oso eten luzea gertatzen da fonografoaren aurrean hitz egiten duenak bat-batean arazoak baititu testua irakurtzeko, begilaburra delako.

2.212., 2.213. eta 2.214 diskoetako narrazioak Resurrección María Azkuek paperera aldatu eta espainierara itzuli zituen.

**Markinan:**

2.215. diskoan Joaquin Arrieta nekazaria dugu kantari. Edukia: Santa Agataren omenez ondutako herri kanta zahar bat. Ageda da Agata izenaren euskal ordaina. Santa Ageda egunean, mutil asko etxez etxe ibiltzen dira santa gorosten eta dirua eskatzen. Horixe da, beraz, grabazioaren edukia. Ezinezkoa izan zen narrazioaz zehatz-mehatz jabetzea, fonografoaren aurrean hitz egin zuen gizonak aldian-aldian inprobisatzen zuelako. Arrietak euskaraz baizik ez daki eta ez du ulertzen espainierazko hitz bakar bat ere.

2.216. diskoa, Martin Barinaga baratzezainarena. Lehenengo zatian, idi proba deskribatzen da. Hegoaldeko eskualde askotako ohitura da kirol hori, eta prisma edo kubo itxurako harri astun-astun bat arrastaka eramatea da helburua. Jendeak apustuak egiten ditu zama mugitu behar duen alderdi baten alde. Oraingoan bi alderdi daude: bata behiena eta bestea idiena. Behiek lortu dute garaipena; bitxia da. Gaur egun, gobernuak debekatu du norgehiagoka hori, baina oraindik leku askotan ikusten da horrelako harriren bat plaza nagusian. Gainera, grabazio honetan zirrara handiko pilota partidu baten berri ematen

da. Esku-buska jokatu zen partidu hura, gehienetan saski bat erabiltzen bada ere, jarduera horretarako berezia.

2.217. diskoa, Teodoro Aginagarena. Grabazio honetan hitz egiten agertzen den pertsonak adierazten digu nola ikusi gaituen nire lagun leiala, Julio Urkijo, eta biok bere kotxera iristen. "Haundiki jakitunak" deitu digu eta guri gustua egin nahi digula esan digu. Horrexegatik ez da pagausoak harrapatzera joan, hasieran hori egiteko asmoa bazuen ere.

### **Mungian:**

2.218. eta 2.219. diskoak, Felix Aginaga al baitariarenak. Grabazioan berba egiten duenak bere lanari lotutako gertakari baten berri ematen digu. Behinola behi gaixo bat sendatzera joateko deitu zioten eta zaldiz abiatu zen harantz. Bidean, bi autok zaldia erotu zioten. Zalduna eta bi autoen jabeak ika-mika hasi ziren. Gero, al baitariari behiaren jabeak esan zionez, behi hura ez zegoen inola ere gaixorik. Hain zuzen ere, hauxe gertatu zen: baserritarrak txarro bat hautsi zuen ukuiluko atean, eta gero, makilkada bat eman zion behiari. Horrexegatik zegoen behia lurrean etzanda, itxuraz gaixorik. Hala, gure grabazioko al baitariak sendabide bati jarraitzeko agindu zion baserritarrari eta biharamunean mutiko batek esan zion behia sendatuta zegoela.

2.220. eta 2.221. diskoak, Jose Goikoetxearenak. 2.220. diskoan eta 2.221. diskoaren lehenengo zatian adierazten da nola joan zen gaztetan ibaira grabazioko gizona lagun batzuekin, aingirak harrapatzera. Behin lau ale gozo atzeman eta gero, denak etxera itzuli ziren. Orduan, euren aurrezki guztiekin lagun guztiek oturuntza handi bat antolatu zuten. Hurrengo ipuin tradizionala Torribii Iturregi udal idazkariaren bidez lortu genuen. Gainera, bera izan zen grabazioan hitz egin zuena. Edukia: txakur batzuk jarraika zeuzkan azerieme bat ibai baten ertzera iritsi zen. Han gizon bat zegoen eserita. Animaliak arren eskatu zion gizakiari beste aldeko ibaiertzera eraman zezan. Horren ordainetan, azeriemeak hiru egia esango zizkion. Gizonak onartu eta azeriemearen ahotik honako hau jakin zuen: 1) Ez dago garia baino belar gozoagorik; 2) Ez dago lastargiarena baino argi hoberik<sup>7</sup>; 3) Ni baino bidaiari hoberik ez baduzu eramaten ibaiaren alde batetik bestera, praka zaharrak besterik ez duzu izango janzteko. Hiru egiok entzunda, gizona azeriemea mirestera behartuta sentitu zen. Lastargiari buruzko aipamenari erreparatuta pentsatzekoa da istorioa oso zaharra dela.

2.215. diskotik 2.221. diskora bitarteko narrazioak Julio Urkijok paperera aldatu eta espainierara itzuli zituen.

### **Bergaran:**

2.222. diskoa, Francisco Oianguren udal idazkariarena. Lehenengo zatian, bi gazteren arteko solasaren berri ematen da. Bi gazteek elkarri animoak ematen dizkiote bata bestearekin hurbileko urmael bateraino oinez joateko, bertan bai-

<sup>7</sup> José M<sup>a</sup> Etxebarria euskaltzainak testu honen transkripzioa eta itzulpena egin zituen, eta ez baitan ez bestean ez dago aipamenik bat ere lastargiari buruz. Ikus *Las grabaciones en euskera de la fonoteca de Viena. Cuentos y anécdotas en dialecto vizcaino*. José M<sup>a</sup> Etxebarria: Etniker - Bizkaia aldizkaria, 9. zk, 1990, 187-204 (I.O.).

*nu bat hartzeko eta gero, dantzaldi batera joateko. Bigarren zatian, baserritar batek bere auzotarrarekin hitz egiten du eta galdetzen dio zer dakien haren semeaz, garai hartan soldadu baitzegoen. Orduan, soldaduaren aitak esan zuen: "Kuban dago eta orain goi mailako kargua du". Besteak galdetu zuen: "Teniente da ala?". Soldaduaren aitak: "Ez, gehiago da nonbait". Besteak: "Tira, ondo, zer da orduan?". Soldaduaren aitak: "Oraintxe gogoratzen naiz, sarjentu lehena".*

*2.223. eta 2.224. diskoak, Jose Joaquin Raymond iturginarenak. 2.223. diskoan kontatzen da nola esnatu zuen gauzainak fonografiatua sute baten kariaz. Hala ere, berandu iritsi zen sute hartara. Bigarren zatian, Raymondek esaten digu bera funtzionarioa dela, etxez etxe uraren gaineko zerga kobratzen dabilelako. Etxeko jaun batek kontuak eskatzen dizkio araudiak agindutakoa baino berrogeita hamar zentimo gehiago kobratu nahi dizkiolako. Raymondek uste du gehigarri hori berari dagokion eskupekoa dela. Zergadunak bere argudioekin jarraitu nahi duenean, funtzionarioak modu dibertigarri batean eteten du eztabaida, hara bildutako gainerakoei euren zorrak kitatu behar dituztela esanez.*

*2.224. diskoa. Hemen grabaziokoak kontatzen du nola joan zitzaion gauzez mutil bat "Masangule" delakoa berarekin dantzatzeko eskatzera. Bigarren grabazioan dei egiten da jai-egun batean, San Martzial egunean, ondo jan eta edateko, biharamunean lan egin behar delako eta ura besterik ezin delako edan.*

*Julio Urkijok dioenez, Bergaran (Gipuzkoa) kulturadun jendeak gipuzkeraz hitz egiten du eta herri xeheak, berriz, bizkaieraz.*

#### **Azpeitian:**

*2.225. eta 2.226. diskoak, Tiburcio Etxaniz sakristauarenak. Grabazioko gizonak bere egunez egunekoa azaltzen digu. Orobat, Loiolako San Iñazio ospetsuaren leku berean jaio izana oso pozgarri zaiola esaten digu.*

*2.227. diskoa, Bitoriano Larragan erlijiosoarena. Azpeitiako lantegi batean gertatutako sute baten berri ematen zaigu. Sute hark eragindako ondorioak ikusi ahal dira oraindik. Eraikina erabat suntsituta dago. Bukatzeko, sutea gertatu zen bitartean lo geratu zen langile baten berri ematen zaigu. Hain zuzen ere, langile hark goizean lan egitera joan nahi zuen eta horregatik, bere lankideek adarra jo zioten, ezin baitzen lanik egin bertan behera erorita zegoen lantegi batean.*

#### **Ataunen:**

*2.228., 2.229. eta 2.230. diskoak, aita Goikoetxeandiarenak. Ataunen jaioa ez bada ere, bertako euskalkia erabiltzen du, 20 urte daramatzalako han. Hiru diskoetan, Ataungo ikazkinen bizimoduaren berri ematen zaigu: martxoaren hasieran inguruko mendietara joaten dira eta maiatzaren bukaerara arte hortxe egoten dira zuhaitzak ebakitzen eta ikatza erretzen. Eskuarki, igandeetan antolatu ohi dira ikazkin-talde horiek, elizaren aurrean, eta ez lan-garaia baino lehen. Aldi berean, baserriko lanetan ere aritzen dira, eta horrela diru gehiago irabazten dute. Oso solasaldi dibertigarri baten bidez ikusten dugu nolakoa den gizonek euren emazteei agur egiten dieten momentua (orduantxe hitz egiten dute ordainketa-baldintzez). Ikatz-lanak dirauen bitartean, jarduera horretarako etxola bat eraiki behar da egokia den edozein belarditan. Eguneko lanaldia 18 ordukoa da; sei ordu dira lo egiteko.*



2.231. *diskoa, Jose Maria Korta sakristauarena. Bertan bere lanaren nondik norakoak azaltzen dizkigu.*

*Tolosan, Policarpo Elozegi txapalgilea izan dugu zain eta berak lortu digu grabazioetarako jendea.*

2.232. eta 2.233. *diskoetan Valeriano Mokoroa liburu-saltzaille eta idazlea dugu hizlari. Biak "Euskalzale Aldizkaria" delakotik hartutakoak dira. Aldizkari hura Bilbon sortu zen eta 1898an eta 1899an Resurreccion Maria Azkueren zuzendaritzapean argitaratu zen. Grabazioetako hizlaria bi disko hauetako narrazioen egilea da. 2.232. diskoak San Anton jaiaren berri ematen du; nolakoa zen lehen eta nolakoa den orain. Funtsean, lehen txerri baten zozketa zen eta halakoxea da oraindik ere. Aspaldian elkarte batek antolatzen zuen jaia. Elkarte hartako kideak etxez etxe ibiltzen ziren zozketako txartelak saltzen. Gaur egun, aldarrikari profesional batek eta soldatapeko lagun-sare batek hartu dute lan horren ardura. Hori dela eta, gastuak askoz ere handiagoak dira. Begien bistakoa da, beraz, txerriak berez balio duena baino gehiago gastatzen dela eta gaitza dela ziurtasun osoz jakitea nora doan diru hori. Mokoroak uste du sistema berri hau atzerapausoa dela, aurrerapausoa baino gehiago. 2.233. diskoan "ihauterriak" izeneko olerkia dago. Bertan esaten denez, Euskal Ihauterrien izae-ra nazionala pixkanaka-pixkanaka galtzen ari da eta dantza kastuei zein tradizionalei dantza erotikoago batzuk lekua kentzen ari zaizkie. Olerkaria kexatzen da horrelako jaietan moraltasuna desagertzen ari delakoan.*

2.234. eta 2.235. *diskoak, Manuel Urreta merkatariarenak. Istorio hauek ere "Euskalzale Aldizkaria" delakotik hartutakoak dira. 2.234. diskoan "Aita eta semea" izeneko narrazioa dago: gizon batek bere emazteari errieta egiten dio, bera apur bat berandu etxeratu zen egun batean, ez zitzaiolako ezertxo ere geratu bere janaririk gogokoenetik. Beste behin, lehen gertatutakoa berriro ez gertatzeko, aipatutako gizonaren semea udalbatzara joan zen aitaren bila; hori zela eta, gizonak demanda egin zion mutilari. Orduan, mutilak esan zuen: "Zure janaririk gogokoena jateko deitu izan ez banizu, ume baten modura egingo zenukeen negar, azkeneko aldian bezala". Hori entzunda, barre-algarak areagotu egin ziren udalbatzan. 2.235. diskoan bi baserritarren arteko solasaldia dago. Solasaldi horrek ondoko izenburua du: "Benetako istorioak", "Euskalzale Aldizkaria" delakotik ateratakoak horiek ere. Uztari buruz egiten dute berba baserritarrok. Nahitaez euria egin behar duelako ondorioa ateratzen dute. Handik lasterrera, izugarritzko eurijasa egin zuen. Gizon bat kexatzen da blai-blai eginda dagoelako, aterkirik ez baitu hartu. Beste gizonak dio ez zutela izango uholdeek eragindako kalte guztiak konpontzeko adina dirurik. Istorio honen irakaspena, olerki modura esanda, hauxe da: ezinezkoa da Jainkoak jende guztiari atsegin ematea.*

2.236. eta 2.237. *diskoetan Demetrio Oyarzabal botikariak kantatutako abesti-zatiak daude. S. A. Santestebanen "Aires Vascongados" bildumatik hartutakoak dira. Gure berri-emailearen arabera, duela ehun bat urteko kantak izan daitezke. 2.236. diskoaren izenburua hauxe da: "Xarmangarria zera". Neska gazte baten edertasuna goستن da bertan. Azkenean, kantariak dio bera libre balego, ez lukeela zalantzarik izango neskarekin ezkontzeko. 2.237. diskoko kanta "nire maiteari" eskainita dago. Edukia: kantaren egileak Donostiako kale batean neska bat ikusi eta harekin guztiz maitemintzen da. Hori dela eta, kantariak dio: "Politagorik ez det ikusi nere begien aurrean".*

2.222. *diskotik 2.237. diskora arteko grabazioak Hondarribiko Gregorio Mujika idazle eta injineruak paperera aldatu eta espainierara itzuli ditu.*

*Agoitzen zaharrek baino ez dute euskaraz egiten, gainerako guztiak espainieraz egiten dute. Inguru hartako jendea erabili genuen grabazioa egiteko, euskalki bereko jendea.*

2.238. *diskoan, Auzperriko Presentación Urtasun andereñoak Orreagaren eta bere inguruaren deskripzioa egin zigun. Orreaga ezaguna da Errolanen kantuatatik. Bukatzeko, esaten du eskualde hartan egurrezko etxe asko daudela eta, zoritxarrez, sarri askotan suntsituta geratzen direla suteen ondorioz.*

2.239. *diskoa, Simon Urtasun apaizarena, aurreko grabaziokoaren nebarena. Erljiosoak Orreagako Santa Maria elizara doan bost eguneko prozesioaren berri ematen du. Ospakizun hori Salvatore ondoko bost egunetan egiten da, maiatzean. Egun batean Ama Birjina Orreagan agertu zela dioen elezaharrari loturik dago prozesio hori. Hori dela eta, leku jakin batetik ehun bat lagun abiatzen dira, batzuek gurutzea lepoan daramatela. Halaxe egin nahi dute penintentzia eta Jainkoaren amarenganako euren maitasuna erakutsi. Aipatutako bost egunetan, bost herritako ordezkariak hautatzen dira. Halaber, elizan halako prozesio bat egiten da Mariaren erditzearen kariatz. Bertan, batik bat Orreagako bizilagunek hartzen dute parte, nahiz eta, orreagatarrekin batera, inguruko herrietako hainbat lagun ere aritzen diren horretan. Gertakari horiek guztiak ohitura zahar-zaharretatik datoz eta hamaika aldiz eman da euren berri egunkarietan zein aldizkarietan.*

*Agoitzetik Erronkaribarrera goaz, Frantziaren eta Espainiaren arteko muga aldera, alegia. Izaba aukeratu genuen abialekutzat. Herri hartan jende gutxik egiten duenez euskaraz, han ezin izan genuen lan fonografikorik egin. Beraz, grabazioak hurbileko herri batean egin genituen, Uztarroten. Han ere euskarak atzerakada handia izan du espainieraren aurrean; hori dela eta, erabaki genuen pertsona bakar bati grabazioa egitea, 55 urteko Victoriano Marco-Pérez lur-jabeari, hain zuzen ere. Euskaraz idatzi gabe 25 urte daramatzanez, zenbait arazo izan ditu narrazioa paperera aldatzeko orduan. Aipagarria da Marco-Pérez osaba izan zela erronkariera Luis Luziano Bonaparte printze hizkuntzalariari aurkeztu ziona. Hori kontuan izanda, bagenekien, dezenteko ziurtasunez jakin ere, ilobak zerbait probetxuzkoa esango zigula. Victoriano Marco-Pérez 2.240., 2.241. eta 2.242. diskoetan agertzen da hizketan. Labur mintzatzen zaigu Erronkaribarrari buruz. Zazpi herrik osatutako bailara da. Kontakizunean esaten zaigu hango biztanleek ausardia zutela bereizgarritzat; hori dela eta, Nafarroako erregeek, haien nagusiek, beti pribilegio handiak ematen zizkieten. Dirudienez, Julian Gaiarre, mundu osoan ezaguna izan zen kantaria, Erronkaribarrean jaio zen. Ikusi ahal izan dugunez, ardiak hazkuntza eta gaztagintza dira hango diru-iturri nagusiak. Orain Uztarrotxi tokatzen zaio. Hango apaizak eta alkateak zenbait leku tipiko erakutsi dizkigute. Jakin ahal izan dugunez, artzainak urtero Erriberara joaten dira euren ardiekin, Uztarrotxeko neguen laztasunetik itzuriz. Irailaren bukaeratik maiatzaren hasierara arte egoten dira bertan. Orduan itzultzen dira etxera. Amaitzeko, jakin genuen 1862an sute izugarri bat gertatu zela Uztarroten. 65 etxe kalteturik izan ziren. Neskame bat bere gelan lo geratu zen kandela bat piztuta utzita. Halaxe sortu zen sua.*

*Uztarroten bertako parrokoak hartu gaitu, gure lan fonografikoan laguntza eman digularik.*

*Julio Urkijoren arabera, bai Agoitzen bai Erronkaribarrean, euskarak atzerakada handia izan du, gizonak, gehienak artzainak direlarik, neguan eskualde epelagoak aukeratzen dituztelako euren artaldeentzat. Eskualde haietan espainieraz baino ez da egiten, esaterako, Nafarroako Erriberan, Aragoiarenetik mugan. Etxean geratzen diren zenbait emakumek oraindik aldian-aldian euskaraz egiten dute, baina seguru asko denborak aurrera egin ahala ohitura hori erabat galduko dute, ez baitute euskararen beharrik gizonekin harremanetan aritzeko.*

**Elizondon, Baztan ibarrean:**

2.245. eta 2.246. diskoak, Pedro Apeztegia erlijiosoarenak. Edukia: sorginen istorio baten hasiera, ahotik ahora zabaldua. Narrazioaren hasieran adierazten zaigu nola igo ziren bi anaia neguan Akelarre mendira. Bata atxean geratu zen nekaturik zegoelako eta gero, ezin izan zuen bestea aurkitu. Zer egin ez zekiela, zuhaitz baten enbor hutsean gaua pasatzea erabaki zuen. Halako batean, sorgin-saldo bat agertu zitzaion. Haietako batek printzesa batez hitz egin zion, hain zuzen ere, beste sorgin batek betiko lo egitera kondenatu zuen printzesa batez. Sendagileek ezin zuten ezer egin horren aurrean. Horren jarraipena ez zen grabatu, baina bertan esaten zen inguruko harri baten azpian bizi zen apo bat akabatua izango balitz, printzesa esnatu egingo litzatekeela. Ezin izan nintzen ipuinaren eduki osoaz jabetu. Nire berri-emaleak dioenez, narrazio hau “Basoko loti ederra” istorio frantsesari erantzuteko sortu zen.

2.247. diskoa, Tadeo Viela merkatariarena. Edukia: “Baztan ibarreko biztanleak ergelak al dira?” izenburuko ahozko herri kontakizuna. Aipagarria da Euskal Herrian baztandarrak ergeltzat jotzen direla. Elizondo Baztan ibarrean dago. Kontakizunean bi baserritar eztabaidan ari dira zikiro lodi eta beltz bat dela eta ez dela. Izan ere, biek horrelako bana daukate euren artaldeetan. Bi zikiroetako bat hiltzen da eta hori ikusita, haren jabeak besteari berea lapurtzen dio. Bi zikiroak berdin-berdinak zirenez, zaila zen oso lapurretaren frogarik lortzea. Lapurtuak Iruñako (Nafarroako hiriburua) abokatu batengana jo zuen eta auziaren berri eman zion, lapurra bera izan zela azalduz. Berak nahi zuen abokatuak zikiroa berea zela esatea, animalia haien arteko antzekotasunean oinarrituta. Abokatuak konbentzitu ezin zuenez, baserritarra poztu egin zen. Ondoren, gizonak benetako gertakariak azaldu zizkion abokatuari eta, egoera ikusita, jakinarazi zion prest zegoela beste baserritarren kontra auzitan aritzeko. Lapurtuak bazekien lapurrak abokatu horrexengana joko zuela laguntza eske. Seguru asko, pasadizo honek argi uzten du baztandarren fama hura ez zela egiazkoa.

2.238. diskotik 2.247. diskora arteko grabazioak Julio Urkijok paperera aldatu eta espainierara itzuli zituen. Hemendik aurrera, grabazio musikalak aipatuko ditugu.

Frantzian, Atharratzen, txistua, xirula eta tuntuna grabatzen dira. Txistua hiru zulodun haize-instrumentua da; pertsona batek erabil dezake musika-tresna hori, tuntuna (frantsesez, “euskal danborra”) jotzen duen bitartean. Tuntuna izeneko danborra zitarra bezalakoa da, sei hariz osaturik dago eta makilatxo batez kolpatuz jotzen da.

2.208. eta 2.209. diskoak, Bernhard Harrichelar arotzarenak. Bi musika-tresna horiek erabilia jotako doinuak daude disko horietan. Dantzatzeko “Moinein” izeneko konposizioa grabatzen da. Hemen euskal jauziak agertzen dira eta doinua dantza baten akonpainamendua da. Tradizioaren arabera, dantza hori

gizonek egiten dute, ez beste inork. Txistuak doinua markatzen du eta tuntuna danborrak akonpainamendua.

*Musika-grabazio hauetan Gabriel Roby dut laguntzaile.*

Espainian txilibista bat grabatu genuen. Frantziako txistuaren modukoa da; bigarrena zurez eginda dago; lehenengoa, berriz, metalez. Txilibista praktikatzeke erabiltzen da, dultzainaren ordeaz, biak berdintsuak izan arren, txilibistak soinu baxuagoa duelako.

2.243. eta 2.244. diskoetan Iruña ondoko Uharteko Venancio Salamera iturgina txilibista jotzen agertzen da. Venancio Salamera udalean ari da lanean musikari. 2.243. diskoan "Uharteko Baltsea" izeneko dantza dago. Gainera, "jota" izeneko dantza ere grabatu genuen; dantza horren amaiera 2.244. diskoaren hasieran dago. Gure musikariak dioenez, bi konposizio horiek Euskal Herrikoak bertakoak dira. Baliteke 2.244. diskoaren bigarren konposizioak espainiar jatorria izatea. "Diana" izeneko konposizioaz ari naiz: doinu hori joz udaleko musikariek Iruñako biztanleak esnatzen dituzte euren patroiairen egunean. "Diana" hitza gaztelaniazko "día" hitzetik dator. Ohitura hori Espainiako ia hiri guztietan errotuta dago, grabazioan hizketan agertzen den pertsonak dioenez. Egindako hiru grabazioak dultzainaz jotzeko dira (zati batzuk lehen aipatutako musikariarenak dira eta beste zati batzuk udaleko beste musikari batzuenak).

Iruñan Julio Urkijok lagundu zidan. Ondorengo grabazio musikalak "Edison" arrabolan<sup>8</sup> egin ziren.

Vienako Artxibo Fonografikoak diskoen bilduma bat egiten hasi nahi duenez, gure ustez mota horretakoak direnak aukeratu ditugu bilduma horretarako. Unibertsitateko Psikologia Institutuko Berlingo Artxibo Fonografikoak, E. von Hornbostel doktore jaunaren bidez, atsegin handiz egin zizkidan Edison motako nire grabazio guztien kopiak. Vienako Artxibo Fonografikoan daude, baten bat hondatuz gero, kopia berriak egin ahal izateko.

Lehenengo arrabolan irrintzi bat grabatu zen, dagoeneko aipatu dugun euskal oihua alegia, Donibane Garaziko Pierre Jendak botatakoa. Seguru asko 2.193. diskokoa baino hobeto grabaturik dago.

Laguntzailea: Georges Lacombe jauna.

Atharratzen (Frantzia) Bernhard Harrichelar arotzaren bidez hiru arrabola lortu genituen. Erabili diren musika-tresnak xirula eta tuntuna dira berrirori ere.

Bigarren arrabola. Edukia:

a) "Ostalera" izeneko kanta, ostalari batena; dantzatzeko da. Kontakizunaren edukia hauxe da gutxi gora-behera: tabernari batek bost eta sei zentimoko ardoa dauka. Bezero batek zerbait ekartzeko agintzen dio. Itxuraz, abesti hori ez da inprimategitik pasatu.

b) Amodiozko kanta bat, "Lili ederra" izenekoa; bertan kantariak loreei galdetzen die ea maite ote duten. Inprimategitik pasatu da.

d) "Satan" izeneko kanta bat; dantzatzeko da. Mozorro-jaietako deabruek son horretan dantzatzen dute. Doinua "Bon voyage, Mr. Dumollet" izeneko kantatik hartutakoa da, baina pitin bat desberdina da konpasari dagokionean. Erabilitako musika-tresna: xirula soilik.

8 Arrabola: zilindro itxurako euskarri musikala (I.O.).



e) “Turkiarren iristera”. Doinua artzainen aspaldiko kanta batetik dator. Ehundaka urte izango bide ditu. Musika-tresna: xirula soilik.

Hirugarren arrabola. Hemen xirula besterik ez da erabiltzen. Edukia:

a) “Pello Joxepe”, kanta satiriko bat. Zenbait lagunek batera abesteko da eta dagoeneko inprimategitik igaro da. Hortik aparte, ezin izan nuen grabazio honi buruzko datu gehiagorik jaso.

b) Fandango bat.

d) “Kauteren dantza”, galdaragilearen dantza.

Laugarren arrabola. Instrumentuak: xirula eta tuntuna. Edukia:

a) “Marche de cavalcade de la Basse-Navarre” izeneko. Ezezagun batek sortu zuen kanta hura, martxetan erabiltzeko.

b) “Barrikada” izeneko dantza bat.

d) “Valse italienne” izeneko konposizioa. Ez zen osorik grabatu. Seguru asko, honezkero inprimategitik pasatu da.

Bigarren, hirugarren eta laugarren arrabolan Gabriel Rody pintatzaileak lagundu zidan.

Bosgarren, seigarren eta zazpigarren arrabolak Igorren grabatu dira, Arratia ibarrean, Bizkaian (Espainia). Anbrosio Gorostiaga morroiak alboka jo du. Alboka bi behi-adarretan ezarritako txilibitu banaz eta bost zuloko tutu batez osaturik dago. Albokarekin batera, Josefa Ealo mirabeak jotako panderoa ere entzun zitekeen. Bosgarren arrabolan, “Artolak deuko” izeneko kanta inprimategitik pasatu gabea agertzen da grabaturik. “Artolak deuko” dira kantaren lehenengo hitzak. Ezin izan nuen, hala ere, informazio gehiagorik jaso grabazio honi buruz. Seigarren eta zazpigarren arrabolan aipatu berri dugun emakumearen kantua agertzen da. Seigarren arrabolan “Asikonaz asitzera” izeneko kantaren hasiera dago. Zazpigarren arrabolan dago amaiera: abestian kantariak neska mairu bat irrikatzen duela dio. Kantariak haren edertasuna goستن du. Orobat, neska hark lokarri beltzekiko abarkak dauzkala azpimarratzen du, altuera txikiko oinetako tradizionalak, alegia. Abarken ezaugarri horiek kontuan izanda, berak uste du neska hura Gipuzkoakoa dela. Zazpigarren arrabolaren bigarren zatian kanta bat dago eta bertan Atxuriko mutil bat agertzen da eta Zaragozara doanez, bere gurasoei agur egiten die. Nire iruzkingileak esan didanez, bertan kontatzen da nola eramaten duten mutil hura, arazo psikologikoak baititu, Zaragozako eroetxera.

Bosgarren, seigarren eta zazpigarren arrabolan Julio Urkijo izan nuen lagun.

Zortzigarren eta bederatzigarren arrabolak Azpeitian grabatu ziren, Gipuzkoan (Espainia). Han bi dultzainen eta danbor baten soinuak grabatu ziren. Funtsean, dultzaina txilibitu mihiduna da eta albokak baino zulo gehiago ditu. Eskualde horretan horrelako hirukote ugari daude. Sebastian Erasti mekanikariak eta Jose Maria Gurrutxaga errementariak dultzaina jo dute eta Gregorio Larralde igeltseroen arduradunak, berriz, danborra. Zortzigarren arrabolan honako konposizio hauek aurkitu ditugu:

a) Ezkon eguneko martxa bat, 100 urtekoa, “eztaitarre” izena duena.

b) Euskal fandangoari egokitutako doinu bat, dantzatzeko dena eta “Andre Madalen” izena duena. Doinu horri lotutako letraren edukia hauxe da, gutxi gora-behera: gizon batek emakume bati olioia erosi ondoren esaten dio bere aitak soldata jasotzen duen bitartean ordainduko diola.

Bederatzigarren arrabolan honako hau dago:



a) “Baserritarra” izeneko kantu bat, dantzatzeko dena. “Fandangillo” du izena kantuaeren letrak. Kantu hau ez da inprimategitik igaro eta seguru asko oso zaharra da.

b) “Porrusalda” izeneko erritmo bat eta berari lotutako dantza, “arin-arin”a. Inprimategitik pasatu da eta oso zaharra da. Ez dauka letrarik.

Hamargarren eta hamaikagarren arrabolak “danbolinjoleek” grabatu zituzten. Lau gizon dira eta horietatik bik “chistua” bana jotzen dute eta makilatxo batez tuntuna izeneko danborra. “Chistua” txilibitua bezalakoa da, baino zulo gehiago ditu. Beste gizon batek “chistu” delako musika-tresna jotzen du. “Chistu” izeneko “chistua” deritzona baino askoz handiagoa da, elkarren artean antz handia badute ere. Laugarren gizonak danborra jotzen du. Grabazio hauek Tolosan egin ziren, Gipuzkoan (Espainia). Valeriano Mokoroa inprimatzaile eta idazlea izan zen danborra jo zuena, eta horrek berak beste grabazioetan parte hartu zuen hizlari gisa. Gainerako instrumentuak Leandro Lavala, Alberto Alberdi eta Jose Txintxillak jo zituzten. Laukote horri udalak ordaintzen zion jaietan plazaz plaza jotzen ibiltzarren. Espainiako hiri gehienetan daude horrelako musika-banda txikiak. Hamargarren arrabolan fandango baten doinua dago, Bilboko orkestra-zuzendariak ondutakoa. Ezin izan dut jakin gizon haren izena. Dantza hau ez da inprimategitik pasatu. Hamaikagarren arrabolak “San Juanetako Martxa” dakar. San Juan Tolosako patroia da. Han 5/8 konpasa erabiltzen da, hots, euskal musikak berezko-berezko duen konpasa. Martxa horren bidez goستن dira santuaren eginak, San Juan egunean zenbait ahapalditan kantatzen zirenak. Ondoko leloa du:

Ongi etorri, sorginen eguna,  
jende guztiarentzako alaitasuna.

Hamabigarren arrabolan Tolosako Demetrio Oyarzabal botikariak kantatzen du. Edukia: “Gernikako arbola”<sup>9</sup> ereserki nazionalaren bi ahapaldi. Kantu arbola bedeinkatzen da eta bere fruituak goستن dira, eta bukatzeko, hau esaten da: “Adoratzen zaitugu, arbola santua”. Letra eta musika Iparragirre izeneko batek sortu zituen. Berrero ere 5/8 konpasarekin egiten dugu topo, alegia, benetako euskal konpasarekin.

Zortzigarren eta bederatzigarren arraboletan Gregorio Mujika injineru eta idazleak lagundu zidan. Hemen aipatzen dira Euskal Herriko Bilduma Etnografikoan aitatzen diren instrumentu guztiak, eta instrumentu horiexek, hain zuzen ere, eraman nituen nik Vienako Etnologi Museo Austriarrera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu nire laguntzaile guztiei, batez ere Julio Urkijo jaunari, bera izan baita bilduma fonografiko honetan laguntza handiena eman didana.

9 Pasarte honetan, “chistua” eta “chistu” hitzen jatorrizko testuko grafiari eutsi diot, bi hitz horiek berdin-berdinak bailirateke euskal grafiaz idatziz gero. Hori dela eta, litekeena da artikulugileak hutsen bat egitea bi hitz horien transkripzioa egiterakoan, euskaldun batentzat “chistua” eta “chistu” ez baitira bi hitz, bakarra baizik. Bi hitzen arteko desberdintasun bakarra hau da: bata artikulua daramala eta besteak, berriz, ez. Hona gure hipotesia: oso litekeena da “chistu” delakoa guk “silbotea” izenez azagutzen dugun musika-tresna izatea (I.O.).

10 Arbola hau duela ehunka urte landatu zen Gernikan, Espainiako Euskal Herrian, eta esan liteke hori euskaldunen independentziaren ikurretako bat dela. Oraindik ere arbola hori bizirik dago. Hortik dator kantaren izena (Rudolf Trebitschen oharra).

*Zientzietako Akademia Inperialaren Artxibo Fonografikoak luzatu zidan gomendiozko gutuna oso baliagarria izan zitzaidan behar ziren agintariekin harremanetan jarduteko.*

*Von Rudolf Trebitsch  
Viena, 1914*

Hauxe izan da, beraz, Rudolf Trebitsch austriarrak Euskal Herrian zehar egindako bidaiari buruz idatzi zuen artikulua.

#### LABURPENA

1913ko udan, Vienako Zientzietako Akademia Inperialaren aginduz, bertako kide bat, Rudolf Trebitsch etnologo ospetsua, Euskal Herrira etorri zen. Lehenago ere Irlandan, Galesen, Ingalaterran, Britainian, Eskozian eta Laponian ibilia zen hizkuntzalaritzari eta etnografiari buruzko datuak biltzen. Bi eremuotan, inondik ere, Euskal Herriak aparteko xarma izango zuen Rudolf Trebitschen begien aurrean, bai euskalkien aniztasunagatik, bai bertoko ohituren antzinatasunagatik.

Bere bilketa-lana burutzeko, gramafono batez baliatu zen; euskalki guztien laginak lortu zituen, bai eta erronkariarenak ere, euskalki hori dagoeneko desagertu bada ere. Hauexek ditugu, ezbairik gabe, euskaraz dauden grabaziorik zaharrenak eta Vienako Artxibo Fonografikoan daude, baina 1984. urteaz geroztik Bilboko Azkue bibliotekan eskuragarri ditugu haien kopiak. Orobat, kanta eta doinu asko grabatu zituen, orduko euskal musikaren erakusgarri. Etnologoa zenez gero, zenbait tresna bertan hartu eta Austriara eraman zituen, hala nola, etxeko tresnak, ehizatzeakoak, arrantza egitekoak, jantziak etab. Vienako Etnologi Museoa Euskal Herriari buruzko sail bat eratze aldera.

#### RESUMEN

En el verano de 1913 el prestigioso etnólogo austriaco Rudolf Trebitsch visitó Euskal Herria por encargo de la Academia Imperial de las Ciencias de Viena de la que era miembro. En años anteriores ya había recorrido Irlanda, Gales, Inglaterra, Escocia, Bretaña y Laponia con el mismo objetivo: recoger datos lingüísticos y etnográficos. En ambos terrenos es de suponer que Euskal Herria fue un destino atrayente por su variedad dialectal y sus costumbres ancestrales.

Para el cometido lingüístico se sirvió de un gramófono en el que registró muestras de todos los dialectos vascos (incluyendo el ya extinguido roncalés) al igual que una gran variedad de piezas musicales. Todas estas grabaciones fueron a parar al Archivo Fonográfico Vienés y, desde 1984, la Biblioteca Azkue de Bilbao ya cuenta con una copia de las mismas que son, sin duda, las grabaciones más antiguas de la lengua vasca.

En su labor como etnólogo, se llevó objetos domésticos, enseres de caza y pesca, vestidos, etc. con el fin de crear en el Museo Etnológico de Viena una sección dedicada a la vida y costumbres vascas.

#### RÉSUMÉ

Dans l'été 1913, le prestigieux ethnologue autrichien Rudolf Trebitsch visita Euskal Herria, envoyé par l'Académie Impériale des Sciences de Vienne de laquelle il était membre. Au cours des années antérieures, il avait déjà parcouru L'Irlande, le Pays-de-Galle, l'Angleterre, l'Ecosse, la Bretagne et la Laponie avec le même objectif : récupérer des données linguistiques et ethnographi-

ques. Dans les deux cas, on suppose que Euskal Herria fut une destination attrayante pour sa variété dialectique et ses coutumes ancestrales.

Pour accomplir sa mission linguistique, il utilisa un gramophone sur lequel il enregistra des échantillons de tous les dialectes basques (tout en incluant le déjà étendu roncalés) de même qu'une grande variété de morceaux musicaux. Tous ces enregistrements furent envoyés aux Archives Photographiques de Vienne, et depuis 1984, la Bibliothèque Azkue de Bilbao possède déjà une copie de ceux-ci qui sont, sans aucun doute, les plus vieux enregistrements de la langue basque.

Pour sa labeur d'ethnologue, il emporta des objets domestiques, le matériel nécessaire pour chasser et pour pêcher, des vêtements, etc. afin de créer une section consacrée à la vie et aux coutumes basques dans le Musée Ethnologique de Vienne.

#### ABSTRACT

During the summer of the year 1913 the prestigious Austrian ethnologist Rudolf Trebitsch visited the Basque Country following the instructions given by the Kaiserlichen Akademie der Wissenschaften in Vienna to which he devoted his investigations. Previously to that, he had already travelled around Ireland, Wales, England, Scotland, Brittany and Lapland with the same aim: to get linguistic and ethnographic information. It is supposed that the Basque Country was an appealing destination for somebody interested in old languages and ancestral ways of living.

As a linguist he used a gramophone to record pieces of conversation, songs and poems performed in the different Basque dialects (including the one already extinguished from the Roncal Valley). There were even recordings from musical pieces. All those records were sent to the Phonogramm Archiv der kaiserlichen Akademie der Wissenschaften and, since 1984, the Azkue Library in Bilbo has kept their reproductions. These are, no wonder, the oldest recordings performed in the Basque language.

As an ethnologist, he gathered items related to the house, hunting, fishing, clothes, etc, so as to shape the collection from the Basque Country displayed in the Kaiserlichen Museum für österreichische Volkskunde in Vienna.